

418 zenbakia. 2000ko uztailearen 14a
JARDUN ELKARTEA

Bergarako asteakaria

Berrigarra

Jazza

Uztaileko eguenetan Espoloian

Edozer aukeratuta ere, beti aukera ona



Izan ere, Renault autoek **finantziazio** aparta dute: **5 kuota doan**, autoa orain gozaten hasi eta beranduago ordaindu ahal izateko. Horrela, aukera beti da ona.

MECA
BERGARA

Erakusketa eta tailerra

Amillaga 5
BERGARA

Tel. 943 76 40 68



Aranzadi Ikastolan Enjoy English programa

Aranzadi Ikastolan ingelesez uda primeran pasatzeko aukera

Enjoy English Aranazadi Ikastolako eleaniztasun planteamenduaren programa osagarria da.

Gure ikastolan haurrak 4 urterekin hasten dira ingelesa ikasten eta LH 1. mailatik aurrera programa berezi honetan parte hartzeko aukera dute. Uztailan zehar ingelesaren ezagupena handitu, praktikatu eta beste kultura batzuekin harremana izateko aukera ezin hobea. Udaleku gisa, jokoak, eskulanak, irteerak... egoten dira. Ikastolan bertan eta begirale natiboekin egiten da, Leire Altuna koordinatzailearen ardurapean.

Enjoy Englisheko begiraleek, Ikastolen Elkarreak antolatutako prestakuntza berezia jaso dute programa aurrera eramateko.

Bergarako hiru familiaren etxeetan egongo dira.

Ongi etorriak gure herrira eta ondo pasatu gure artean!



Moira Sheedy Hizkuntzak ikasten ari den 19 urteko neska irlandarra da. Irakurtzea, kirola egitea eta bidaiatzea dira bere zaletasunak. Haurrekin lan egitea du gustuko eta Enjoy English programaren bitartez izan du horretarako aukera.

Brendan Money Mutil irlandar honek 23 urte ditu. Ingeles literatura ikasten ari da eta surf irakaslea da. Bere tabla ekarri du hemengo olatuetan bustitzeko asmoz. Euskal Herriko janaria dastatzeko irrikiz etorri da eta oso gustuko du irakasletza.

Catherine Pole Europako Hizkuntza modernoan ikaslea da, 19 urte ditu eta Nottingham-en jaioa da. Nesken arraunlari talde bateko buru da eta klarinetea jotzen du.



Telezaborra

Elena Fernandez / Ikaslea

Betidanik pentsatu dut telebistan interesgarria den ezer gutxi ikas edo ikus daitekeela. Hala ere, azken urtean, telebistarekin harreman handiagoa izan dut, eta benetan, kiratsa dariola pentsatzea besterik ez zait gelditzen.

Orokorrean, ikusleek, animalien dokumentalak eta albistegiak ikusten dituztela diote, baina audientzien neurketak ikustea besterik ez dago, erabat alderantzizkoa dela ohartzeko.

Telebistek, morboa darion guztia da eskeintzen diguten gauza bakarra, beraz, zenbat eta morbo handiagoa, orduan eta gehiago handitzen da ikusle kopurua.

Azken urteotan, amerikar telebistatik plagiaturiko "reality show"ak, eta mila aldiz ikusitako filmeek, programazioaren erdia baino gehiago betetzen zuten. Egun, berriz, Alemania eta

Holandako telebistetatik ekarritako "boom"ekin hasi dira telebista lokalak zein estatalak infektatzen. Bai, guztiok ezagutzen ditugun eta gizarte "monotema" bilakatzen ari diren horiek hain zuzen ere, "gran hermano, gran

autobus, gran..." eta hauek sortarazten ari diren ondorio guztietaz ari naiz.

Telebista berri honen egitura nahiko tamalgarria bada ere, kontutan hartzekoa da, audientzia handiagoa lortzen duten programak, gertaturiko istripu baten ondorioz ateratzen diren programa bereziak besterik ez direla izaten.

Eta hau guztia ikusita, zeure buruari era honetako galderak luzatzen dizkiozu....zergatik mota honetako telebista eskaini eta ez bestelakoa? Ez al da, ikusleak erabat pasiboak bihurtzea duen helburu bakarra? Noski, errazagoa suertatzen da egungo gizartea husterien inguruan murgiltzea egungo baloreei aurre egitea baino.

Beraz, ea GOITBk ezberdina den zerbait eskaintzerik duen eta ez duen "Bergara handia" edo... deritzon telesaileren bat ateratzen.<

"Telebista berri honen egitura nahiko tamalgarria bada ere, kontutan hartzekoa da, audientzia handiagoa lortzen duten programak, gertaturiko istripu baten ondorioz ateratzen diren programa bereziak besterik ez direla izaten"

barruan



Ainhoa Telletxea

Turismo Bulegoko arduraduna

"Hondartzarik gabe ere, gustu gehienak asetzeko modukoa da Bergara"

8.



Ramon Arantzabal

Pintorea

"Hirurogei kuadroko erakusketa prestatzen ari naiz. Dagoeneko erdiak margotu ditut"

27.



Ana Iztueta

Nerea lantzeriakoa

"Gizonendako koloretako barruko erropia gustatzen jat; estuak, boxerrak"

29.

AGENDA ETA ZERBITZUAK



IKASTAROAK

Lanbide-hastapena. Donostiako Udala. Eskola-ziurtagiria baino titulazio altuagorik ez duten 16 eta 21 urte arteko gazteentzat. Ikasketak: sukaldaritza, merkataritza, iturgintza, zurgintza. Hasiera: irailak 25.
Udako tailerrak. Donostiako Kontadores eta Martuteneko gaztelekuak. Ipuin kontaketa, malabarismoa, akrobazia... uztailaren 11tik 20ra bitartean.

SARIAK

Gaztemaniak! 4. CDa. Gaztemaniak! Egun kontratu diskografikorik ez duten Gipuzkoako talde zein musikagileentzat. CD berria azaltzeko maketa lehiaketa. Epea: irailak 15.
Bertsopaper Lehiaketa. Zarauzko Udala. XVI. Basarri Saria. Originalak, argitaragabeak eta saritu gabeak diren lanak aurkeztu ahal izango dira. Gaia librea. Epea: uztailak 28.

BEKAK

Garraioari buruzko hezkuntza.

Garraio eta Herri-lanetarako Ministerria. Euskal Autonomi Erkidegoan bizi diren unibertsitateko goi mailako tituludunentzat. 12 edo 18 hilabeteko bekak. Epea: uztailak 17.

LAN ESKAINTZAK

LEP 2000. Eusko Jaurlaritza. 2000 urteko Lan Eskaintza Publikoa betetzeko aukeraketa prozesua. <http://www.ivap.org>. Guztira 750 lanpostu. Epea: uztailak 17.

Lan-praktikak. Arrasateko Udala. Bide-ingeniaria. Informatika begiralea. Informatika laguntzailea. Antolakuntzako maila erdiko teknikaria. Saneamenduko maila erdiko teknikaria. Bi urtetako praktiketako lan kontratua. Epea: uztailak 20.

BESTEAK

Bergarako musika taldeak. Talderen bateko partaide bazara eta interneten dagoen MUSIKA-GIDAn agertu nahi izatekotan, jarri zaitzte gurekin kontaktuan.

KARNETA

Nazioarteko Aterpeakide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunera.

INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE
INFORMAZIO GUNEA (Kultur Etxea)
TELEFONOA: 943 77 91 57.
E-posta: gzerbitzua@euskalnet.net
Ordutegia uztailaren 6tik irailaren 2ra:
Eguena: 09:00-23:00 eta 16:00-20:00
Eguakitza: 09:00-13:00
Abuztuko 2., 3. eta 4. astea, itxita

OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztiko informazioa zabaltzeko. Mila esker.

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Ortosik

Oinutsik.
Sinonimoak:
oiñutsik, ankautsik,
oingorri utsetan.

-Jantzi
zapatilla
batzuk, ez ibili
ortosik.



Temperaturak eta euria Bergaran

Elosu: Joxean Azkarate

San Juan: Luis Mari Agirre

	Elosu			San Juan		
	max. °C	min. °C	euria l/m ²	max. °C	min. °C	euria l/m ²
Eguena 6	29	17	-	36	14	-
Eguakitza 7	16	13	16,1	24	14	9,3
Zapatua 8	15,5	10	3,4	21	14	6,5
Domeka 9	20	12,5	12,9	27	11	14,5
Astelehena 10	12	11	22,4	18	15	20,2
Martitzena 11	12	8,5	10,2	18	12	8,6
Eguaztena 12	14	9	1,2	19	11	-

Farmaziak

Eguakitza 14:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Zapatua 15:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Domeka 16:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Astelehena 17:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Martitzena 18:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Eguaztena 19:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Eguena 20:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Ogia

Domeka 16: Mizpildi.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak 112
DYA 943 78 71 57
Gurutze Gorria 943 76 55 76
Larrialdiak 943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
Anbulantzia 943 55 49 62
Udaltzaingoa 943 77 91 06
Ertzaintza 943 76 53 40
Suhiltzaileak 943 78 28 00
Osasun Etxea 943 76 24 40
Arrasateko ospitalea 943 03 53 00
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23

GARRAIOAK

Euskotren 943 45 01 31
PESA 902 10 12 10
Taxiak 943 76 19 50
RENFE 943 28 35 99

UDALA

Udaletxea 943 77 91 00
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultur Etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Jubilatuena Etxea 943 76 21 40
Postetxea 943 76 26 85

zorion agurrak



Saioa Unamuno
14an urtebete.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Iñaki Kortabarria
20an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.




Iosu Marzo
15ean 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Nerea Marzo
17an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Nekane Alegria
15ean 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Jon Ander Rodriguez
15ean 8 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Maddi Mujika
15ean 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Beñat Lizarralde
19an 5 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Jazmin Forjan
14an 5 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta anaia.



Mamen
14an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Altzarteko peña.



Aritz Rodrigo
18an 3 urte.
Urte askotarako!
Osaba, izeba eta
Iraia.



Janire Iglesias
18an 12 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta
aitona-amonak.

jaiotakoak

BERGARA

Angel Jabier Hernandez Rojas

Ekainak 9

Belen Pelicano Santos

Ekainak 27

Maria Molina Flores

Ekainak 30

Miriam Moñux Ugalde

Uztailak 2

Andoni Garcia Lerga

Uztailak 6

hildakoak

Aste honetan ez dugu hildakoen berririk jaso ez Bergaran eta ez Antzuolan.

mezak

Santa Marina Domekak: 13:00. Zapatuak: 20:00. Lanegunak: 19:30.	Angiozar Domekak: 11:00.
San Pedro Domekak: 09:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:00.	Monja Zaharrak Domekak: 18:00. Zapatuak eta lanegunak: 07:30.
Osintxu Domekak: 11:30.	Mizpirualde Domekak: 11:45. Zapatuak eta lanegunak: 11:45.
Elosu Domekak: 13:00.	Antzuola Domekak: 11:30. Zapatuak: 20:30
Ubera Domekak: 10:30.	Uzarraga Domekak: 10:00.
San Juan Domekak: 11:00.	Elgeta Domekak: 12:00. Zapatuak: 20:30.
San Prudentzio Domekak: 10:30.	San Lorenzo Lanegunak: 09:00.
Labegaraieta Zapatuak: 19:00.	
San Lorenzo Zapatuak: 19:00.	

URTE-MEZAK

Santa Marina

Hileko 2. astean, domekan 13:00etan.

San Pedro

Hileko 3. astean, zapatuan 19:00etan.

ESKER ONA

**Joakin
Ostolaza Goñi**

Bergaran hil zen
2000ko uztailaren 4an,
91 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi
eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

**Aitor
Gallastegi Epelde**

Lehen urteurreneko meza
domekan, uztailak 16,
goizeko 09:30ean, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

**Angel
Aranguren Pildain**

Bergaran hil zen
2000ko uztailaren 4an,
88 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi
eskerrik asko sendikoen izenean.*

*Eskelak, urteurrenekoak eta
eskertzak eguazten eguerdira arte hartzen ditugu.*

autobusak

Bergara-Antzuola. Lanegunak: 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 15:00, 17:05, 18:00, 20:30.
Zapatuak: 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30.
Domeka eta jaieg.: 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

Antzuola-Bergara.

Lanegunak: 08:30, 12:05, 18:00, 19:35.
Zapatuak: 08:30, 12:05, 18:00, 19:35, 20:40.
Domeka eta jaieg.: 10:00, 18:00, 18:35, 22:05.

Bergara-Arrasate-Eskoriatza. Lanegunak:
07:15*, 07:25, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35,
13:35, 14:30*, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35,
19:35, 21:05*, 21:35*. Zapatuak: 07:15*, 09:35,
11:35, 13:35, 14:30*, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35,
19:35, 21:05*, 21:35*. Domeka eta jaiegunak:
09:15*, 11:15, 14:30*, 14:35, 16:35, 18:35,
19:15*, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino).

Bergara-Gasteiz.

Lanegunak: 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15,
15:15, 19:00, 19:15, 21:15. Zapatuak: 07:15,
08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15,
21:15. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15,
14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15.

Gasteiz-Bergara. Lanegunak: 06:30, 07:30,
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 13:30, 12:30, 14:30,
15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30.

Zapatuak: 06:30 (Arrasateraino), 07:30, 08:30,
12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Domeka eta
jai egunak: 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30,
18:30, 19:30, 20:30.

Arrasate-Bergara. Lanegunak: 06:05, 06:30,
07:05, 07:20, 08:05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05,
11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05,
16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:20,
21:20. Zapatuak: 07:20, 08:05, 08:20, 09:20,
10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05,
17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20,
21:20. Domeka eta jaiegunak: 09:20, 09:50,
11:20, 13:05, 13:20, 15:05, 17:05, 17:20, 19:05,
19:20, 20:05, 20:20, 21:20.

Bergara-Oñati.

Lanegunak: 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35,
19:35, 20:45. Zapatuak: 20:45. Domeka eta jaiegunak:
ez dago zerbitzurik.

Oñati-Bergara. Lanegunak: 07:10, 08:00,

13:10, 13:55, 16:15, 17:10, 19:10. Zapatu,
domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.

Bergara-Eibar. Lanegunak: 06:05, 07:20,

08:20, 09:20, 10:20, 11:20, 12:15, 12:20, 13:20,
14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 18:20, 19:20, 19:45,
20:20. Zapatuak: 08:20, 10:20, 12:15, 12:20,
14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 18:20, 19:20, 19:45,
20:20. Domeka eta jaiegunak: 13:40, 15:20,
17:20, 18:45, 19:20, 20:20, 22:15.

Eibar-Bergara.

Lanegunak: 06:50, 07:00, 07:30, 08:00, 09:00,
10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00,
17:00, 18:00, 19:00, 20:30, 21:00. Zapatuak:
09:00, 11:00, 13:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00,
19:00, 20:30, 21:00. Domeka eta jaiegunak:
14:00, 16:00, 18:00, 20:30, 21:00.

Bergara-Donostia (Autopistatik).

Lanegunak: 06:45, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35.
Zapatuak: 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35.
Domeka eta jaiegunak: 10:05, 19:35.

Bergara-Donostia (Tolosatik).

Lanegunetan: 09:00, 18:00. Zapatuak: 09:00,
18:00. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.

Donostia-Bergara (Autopistatik).

Lanegunak: 08:15, 12:30, 15:00, 18:00, 19:30,
20:45. Zapatuak: 08:15, 12:30, 18:00, 19:30,
20:45. Domeka eta jaiegunak: 18:00, 20:45.

Donostia-Bergara (Tolosatik).

Lanegunak: 07:00, 16:30. Zapatuak: 07:00,
16:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 19:00.

Bergara-Bilbo.

Lanegunak: 07:15, 08:40, 13:45 (Elgetaraino),
14:30, 18:10. Zapatuak: 07:15, 08:40, 14:30,
18:10. Domeka eta jaiegunak: 10:10, 14:30,
18:10, 19:15.

Bilbo-Bergara. Lanegunak eta zapatuak:
08:00, 12:30, 17:00, 20:00. Domeka eta jaiegunak:
09:00, 12:30, 19:30, 21:00.

Bergara-Iruña. Lanegunak eta zapatuak:

08:00, 14:00. Domeka eta jaieg.: 09:30, 18:30.

Iruña-Bergara. Lanegunak eta zapatuak:
10:30, 18:00. Domeka eta jaieg.: 17:00, 20:30.



Mikel Salegi
19an 14 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta anaia.



Amaia Moreno
16an 25 urte.
Urte askotarako!
Ander.



Martxel Garai
16an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Loli.



Josu Dominguez
20an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Garazi Ortuzar
19an urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.

*Hurrengo alean,
opor aurreko
azkena delako,
uztailaren
21etik
irailaren 7ra
bitartekoan zorion
agurrak
argitaratuko
ditugu.*

ANTZERKIA

► **"Manolito gafotas"** gaur, eguakitzatuta, 22:30ean Oñatikoa Santana aretoan.

► **Nazioarteko kale antzerki topaketak** Zarautzen: bihar, zapatua, **"Goloka park"** 18:30ean kaleetan zehar, 19:30ean **"Sekula guztiarako bideak"** Musika plazan, 20:30ean **"Paketetxoa"** kaleetan zehar eta gauerdian **"Bosc Magic"** Munoan.

MUSIKA

► **Udal Musika Bandaren** emanaldia domekan, 12:30ean, Fraisko zurin. Aurretik, kalejira.

► **Hierbabuena** eguenean, hilak 20, 22:00etan Espoioan.

► **Herriko taldeen** kontzertua hilaren 21ean, 21:30ean Gazte Lokalean.

ERAKUSKETAK

► **Ramon Arantzabalen** margoak Nahikarin.

► **Juan Jose Altunaren** "Donostia, bere argia" margo erakusketa Digitex arte galerian (Usandizaga, 5).

LEHIAKETAK

► **Gazteak eta arrazakeria XI. argazki lehiaketa**,


ERAKUSKETA

Jazzeko 30 nagusiak

- Domekara arte, uztailak 16
- Kultura Etxean

"Jazzeko hogeita hamar nagusiak" izenburupean, Josemari Aleman Amundarainen pintura erakusketa ikusgai dago egunotan Kultura Etxean. Josemari Aleman Amundarainek (Urretxu, 1948) hainbat egunkari eta aldizkaritan argitaratu ditu lanak, publikitatea jorratu du eta baita telebistarako eszenografiak ere. Hala ere, "El Diario Vasco" egunkarian duela 10 urtetik egiten dituen ilustrazioengatik ezaguna dugu batik bat. Bergarako erakusketa duela lau urte erakutsi zen lehen aldiz. Josemarik berak azaldu digunez, "jazz musikari buruz zerbait egiteko gogoia neukan eta musikoen biografiak eta argazkiak aztertzen hasi nintzen. Dokumentazio handia lortu nuen eta aukeraketa bat egin behar izan nuen. Estiloak, garaiak edota musika tresnak izan ziren erabilitako irizpideak. New Orleansetik jazza ezagutzera eman zuen King Olivere-tik hasi eta Pat Metheny-raino doan tarte islatu nahi izan dut".

Esan bezala, 30 erretratu dira erakusten direnak, tartean Wynton Marsalis, Billie Holiday, Ella Fitzgerald, Louis Armstrong edo Miles Davies maisuenak. Tinta txinoarekin eta areografoarekin eskuz egindako paperaren gainean egindako pinturak dira. Aleman Amundarainen hitzetan, "bost izarreko artistak dira denak eta margotzeko orduan nahiko bitxiak, fisikoki ezberdinak direlako eta oinarritzat erabili nituen argazkietan jestu aldetik eta aukera asko ematen zidatelako". Erakusketa duela lau urteko Donostiako Jazzaldiaren barruan erakutsi zen lehenbizikoz.



Josemari Aleman Amundarain ilustratzailea.

Debagoieneko 14-18 bitarteko gazteei eta 19-35 urte bitarteko edozeini zuzenduta. Jorratu beharreko gaia gazteak eta arrazakeria izango da. Zuribeltza zein koloreko kategoriak bereiztuko dira eta lanak aurkezteko epea urriaren 11n bukatuko da. Argibide gehiago

jasotzeko, deitu 943 77 00 65 zenbakira.

► **Jokin Zaitegi XIV. Itzulpen Laburren sariketa**, Arrasateko AED elkarteak deituta. Aurtengo gaia "Ura" izango da eta testuaren luzerak 15-30 orrialde bitartekoa izan

behar du. Lanak aurkezteko epea urriaren 31n bukatuko da. 943 77 12 28.

IKASTAROAK

► **"Makina erreminta eta doikuntza"**, emakumeei

DENA
100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta 3



BANKINTER

Zure hipoteka merkatuko preziorik onenean

%3,25* etik aurrera

*Irekiera komisioa: %1
*Lehen 6 hilabeteak
*35 urte bitartearaino



ARRI

Industri hornidura

Zubiaurre 30
Tf. eta faxa: 943 76 19 04.
Mugikorra: 656 78 64 84.

zuzenduta, Debagoieneko Mankomunitateko Eskolan, irailaren 19tik martxoaren 23ra arte (400 ordu). Izena emateko epea uztailaren 21era arte zabalik Arrasateko Udalaren Enplegu Zerbitzuan. Argibideak 943 79 09 00 zerbakian.

DEIAK

► **Ikasle Abertzaleak** taldeak antolatuta, mendi martxa uztailaren 20tik 23ra, Sara, Zugarramurdi, Amaiur eta Elizondo bisitatuz. Izen-ematea (2.500 pezeta) Euskadiko Kutxako 0920040737 kontu korrantean astelehenera arte zabalik. Autobus txartelak (1.000 pta.) Arrano tabernan.

► **Lasturreko I. azoka ekologikoa** hilaren 23an, 9:00etatik 14:00etara.

► **Txino jokoaren txapelketa** hilaren 21ean, 23:00etan, Canalejas tabernan. Izen-ematea egunean bertan.

► **Kapirixoren irteera** domekan, hilak 16, 9:30ean Matxiategiko kanposantu ondoko parkingetik. Itzulera ordubatean izango da. Ibilaldi gidatua izango da eta Bergarako bi ikuspegi landuko dira: bata goiko trenbidetik gorantz joanda, eta bestea herriko ertaroko kaleetatik zehar. Bestalde, egun horretan Kapirixo elkartearen egoitza berria ezagutu eta bertan zerbait jateko aukera ere izango da.

► **Bideoa:** "Miedo y asco en Las Vegas" martitzenean, hilak 18, 22:15ean Gazte Lokalean.

► **Abiadura Handiko Trenaren aurkako akanpada** uztailaren 24tik abuztuaren 6ra bitartean Arrasaten. Argibideak 943 79 94 49 zerbakian.

► **Odol ateraldia** eguaztenean, uztailak 19, 18:30ean, Seminarioko lokalean.

OHARRAK

► **Bergarako Gazte Informazio Gunean** (Kultura Etxean) nazioarteko ikasle, irakasle eta gazte txartela eta aterpekeide agiria eskuratzeko aukera dago. Nortasun Agiria eramatea beharrezkoa da. Gazte Informazio Gunea eguaztenean 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara dago zabalik. Argibideak: 943 77 91 57.

JAIAK

► **San Kristobal auzoa:** bihar, zapatua, San Kristobalگو V. plater tiraketa izango da 16:00etan.

► **Santa Marinako jaiak:** martitzenean, hilak 18, 19:30ean Udal Korporazioak eta Udal Musika Bandak lagundutako Meza Nagusia. Jarraian Aritzeta abesbatzaren emanaldia.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

Campo de batalla: la tierra

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 22:30.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

ARRASATE. Alai zinema

La musa

Eguakitza: 22:00.

Campo de batalla: la tierra

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.

Astelehena: 19:00, 21:30.

Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

ARRASATE. Monterron

Algo pasa con Mary

Eguena: 22:30.

EIBAR. Unzaga

Yo, yo mismo e Irene

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

Donde este el dinero

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

ELORRIO. Arriola

Gladiator

Zapatua: 22:30.

Domeka: 20:00.

Astelehena: 20:00.

OÑATI. Santana

Soñe con Africa

Zapatua: 22:30.

Domeka: 19:30, 22:30.

Astelehena: 19:30.

AZKOITIA. Baztartxo

Campo de batalla: la tierra

Eguakitza: 22:00.

Zapatua: 22:00.

Domeka: 17:15, 19:30, 22:00.

Astelehena: 20:00.



CAMPO DE BATALLA: LA TIERRA

Zuzendaria: Robin Christian.

Aktoreak: John Travolta, Barry Pepper. ▲ 13 urte

John Travolta aktore ezagunak 3000 urtean girotuta zientzia fikziozko filmea errodatu du oraingoan. Aurreko milurtean estralurtarrak luraren jabe egin zirenetik, gizakia desagertzeaz dago eta ez dago ez herrialderik ez hiririk. Gelditzen diren biztanle apurrek esklabu moduan egingo dute aurrera...

DONDE ESTE EL DINERO

Zuzendaria: Marek Kaniewska.

Aktoreak: Paul Newman, Linda Fiorentino. ▲ 13 urte

Banku lapurretan maisu lanak egin dituen Henry (Paul Newman), kartzelatik igaro ondoren, zaharren egoitza batean erretiraturatuta dago. Bertako erizain bat (Linda Fiorentino) egunerokotasunarekin asperuta dago eta Henryri lapurretaren trikimailuak erakusteko eskatuko dio.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

Mujika
gozologia

Berezitasunak:
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 **BERGARA** 943 76 10 34

Ugarrixa merenderoa

Elosuko bidean

BERGARA
943 76 28 92



TOKI-ONA Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitzizotzak
Kazolatxoak / Txabieroak

Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53

Joan zen ekainaren 17an ireki zituen ateak Turismo Bulegoak, eta irailaren 17ra arte egongo dira irekita. Ainhoa Telletxeak Bulegoko arduradama beste lan-kide batekin batera. Bisitan etortzen diren turistaren inguruan hainbat gauza azaldu dizkigu.

G. Zeren bila etortzen da jendea Bergarara?

E. Kultura eta gastronomia bila batez ere. Jendea hein handi batean euskal kultura aztertzerara etortzen da, badakielako hau Gipuzkoako bihotza dela. Beste batzuk ez dira ezer konkreturen bila etortzen, baina gustatzen zaie aurkitzen dutena.

Baina esan bezala, kultura eta gastronomia batez ere, eta noski, honek inplikatzen duen gutzia.

G. Zein da hona hurbiltzen den turistaren perfila?

E. Normalean adin ertaineko pertsonak dira, eta familian etortzen direnak, euren kotxean.

Herrialdeari dagokionez, frantses asko dator kotxez. Horrez gain, azkenaldian, euskaldunak ere asko datoz; gero eta gehiago, gipuzkoarrak eta bizkaitarrak batez ere, eta zehatzagoak izateko, Donostia eta Bilbo-koak, hiriburu-erakundeak.

Arestian esan bezala, familiak dira batez ere hurbiltzen direnak, eta gehienbat nekazal turismoa egiten dutela esango nuke. Hori da, behintzat, eskatzen digutena, hemen, bulegoan.

G. Lehenago esan duzunez, turista asko gastronomiagatik ere etortzen dira. Laz jatetxeak itxita egon ziren udan. Aurten?

E. Guk ez daukagu eraginik horretan. Dagoenaz informatu baino ez dugu egiten. Hitzegin dugu jate-

AINHOA TELLETXEA
Turismo Bulegoko arduraduna

“Hondartzarik gabe ere, gustu gehienak asetzeko modukoa da Bergara”



Ainhoa gain, beste hiru pertsonak dihardute lanean Turismo Bulegoan.

txe eta gozotegietako nagusiekin eta dagoeneko bada-kigu abuztuko bigarren eta hirugarren astean gutzia itxita egongo dela.

G. Turistek izaten dute Bergarari buruzko aurretiazko erreferentziarik?

E. Denetarik dago. Etor-tzen diren guztiei galdetzen diegu. Batzuetan ezagunak dituzte Bergaran eta lo ere

“Batez ere, euskal kultura ezagutzera etortzen da jendea Bergarara, badakielako hau Gipuzkoako bihotza dela”

hauen etxean egiten dute; beste batzuetan, mapa eskuetan hartu, ibilbideak egiten hasi eta Bergaran bukatzen dute. Hemen kontuan izan behar da betiko hondartzako oporrek aspertuta dagoen jendea gero eta gehiago dagoela. Turismoa egiteko modua ere aldatzen doa, eta gero eta gehiago dira inongo planik gabe, mapa eskuan dutela bidaiatzen dutenak.

Horrez gain, azken urte hauetan promozio lanak egin ditugu, bisita gidatuak ere doainik... jendea erakartzen saiatu gara.

G. Etxekoa ezagutu gabe kanpokoa ezagutzera joateko joera ei dugu. Iritzi horretakoa zara?

E. Bai. Bergaran ere hori gertatzen da. Herritar askok ez duzue ezagutzen zuon herria. Eraikin asko esaterako berriztu egin dira, baina nahiz eta hori horrela izan, ez duzue estimatzen, eta pena handia da. Hori bai, zuon oporretan Estatu Batuetara joaten zarete.

G. Zer esango zenioke Bergara ikustera etorri nahi duen kanpotar bati?

E. Bergara nahiko herri adierazgarria dela euskal kulturaren barruan. Horrela, euskal kulturarekin kontaktua izan nahi badute, etor daitezela, eta arkitektura tipikoa, tradizioak, gastronomia eta euskaldunen izaera ezagutzeko dituztela. Bergara garbi mantendu izan dela zentzu batean; Donostiak Frantziaren eragina izan du, Arabak Gaztelakoa... baina Bergara bere horretan dago. Hori da, hain zuzen, Bergarak duen gauza interesgarrienetako bat.

Herri monumentala aurkituko dutela ere esango nieke, eraikin dotore eta ugariarekin. Hondartzarik ez duen arren, gustu gehienak asetzeko moduko herria da.



Marga Lopezek egin zituen Bergarako lehenengo 100 metroak.



Azken 100 metroak Jose Mari Etxanizen aitak, Marianok, egin zituen.

Atxikimendu ugari izan zituen eguaztenean Martxa Nazionalak

Herrian egindako ibilbidean zehar 18 tokitan aldatu zen lekukoa

“Euskal Presoak Euskal Herrira Martxa Nazionala” Bergarara heldu zen eguaztenean. Iragarrita zegoen bezala, eguerdiko 13:00etan iritsi zen. Herriko talde ugari atxikitu zitzaizkion, eta 18 tokitan aldatu zen eskuz lekukoa.

Antzuolatik etorri zen eta San Antonioko bidegurutzean hainbat lagun zituen zain. Lekukoa Marga Lopezek hartu zuen eta ibilbideko lehenengo 100 metroak berak egin zituen. Azkeneko 100 metroak, Jose Mari Etxaniz presoaren aitak, Marianok egin zituen.

“Egin itzazu 100 metro euskal presoaren eskubideen alde” eta “Egin itzazu 100 metro zure hitzaren defentsan” martxako leloak jarraituz, 18 tokitan aldatu zen eskuz lekukoa; berau, atxikimendua adierazitako hainbat taldek eraman zuten. Horiez gain, beste hainbat taldek ere euren elkartasuna adierazi zioten martxari.

Antolatzaileak oso pozik daude martxak herrian izan duen atxikimendurekin. Hala ere, martxari atxikimendua adierazi ez dioten taldeak ere izan dira, Udala, EAJ eta EA alderdiak edota Jardun elkarteak esaterako.

Herriko ibilbidea amaituta, bazkaria izan zen Artatse elkartearen. Ondoren, arratsaldeko 16:00etan Eskoriatza aldera jarraitu zuen

bere ibilbidea martxak, eta bailarako ekitaldiekin amaitzeko, kontzentrazioa izan zen Oñatin arratsaldeko 19:30ean.



Hainbat taldek eraman zuten lekukoa. 200 lagun inguru joan ziren martxan.

BEHEKO TABERNA

Menestra eta konejota dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74

iRUDI

Erlojudenda Bitxitegia

Ibargarai 2
943 6 51 65



☎ 943 76 20 61

ARREGI

Eraikuntza materialak

Biltegia Tellerian, Labegariaetan.
Tf. 943 76 27 93

Fatxadetako parabolikoak kentzeko agindu du Udalak

Gero eta herritar gehiago ari dira, Udalaren arabera, etxeko lehio edo balkoian antena parabolikoa jartzen. Horren aurrean, etxeetako fatxadetan jarri diren antena paraboliko guztiak kentzeko kanpaina jarri du martxan Udalak.

Antena jartzeko, baime-na eskatu behar da Udalean, eta Jose Antonio Etxeberria hirigintza batzordeburuaren esanetan, "antena hauek guztiak baimenik eskatu gabe jarri dira".

Bestalde, Arau Subsidiarioetan jasota dagoena jarraituz, Udalak ez du fatxadetan antenarik jartzeko baimenik ematen. Eta Etxeberriak gaineratutakoaren arabera, "fatxada gutzitza zartzuten dute".

Udalak bultzatutako kanpainaren ondorioz,



Antenak kendu ezean, Udalak kenduko ditu; kostuaz jabea egingo da kargu.

etxeko fatxadan antena parabolikoa jarri duten herritar guztiak, kendu egin behar dute bertatik. Horretarako, bi hilabeteko epea izango dute.

Erabakia dagoeneko jakinarazi zaie etxeko fatxadan antena parabolikoa duten herritarrei: euren etxebi-

zitzako aurrealdearen argazki bat eta jakinarazpena bidali zaie etxera.

Antenak kendu ezean, neurriak hartuko ditu Udalak Etxeberriak esan duenaren arabera: "Antenak Udaleko brigadak kenduko ditu, eta kostuaz antenaren jabea egingo da kargu".

Udalaren oharra gas instalazioak direla eta

Datozen egunetan gas instalazioak ikuskatzen dituen enpresa bat hasiko da bere zerbitzuak eskaintzen Bergarako hainbat etxebizitzetan.

Herriko biztanleei gogoratu nahi die Udalak, ikuskatze horiek norberak nahi duen instaladorearekin egin ditezkeela. Beraz, ez da derrigorrezkoa etxera doan enpresarekin egitea.

Ikuskapena noiz egin behar duzun jakiteko gasaren banatzailearekin harremanetan jarri. Dena den, etxean eskaintzen diren zerbitzuetako bat onartu aurretik eskatu aurrekontua, eta ados ez bazaude ez utzi ikuskapena egitea.

Iñigo Elkoro etxean dago eguaztenetik

Iñigo Elkoro baldintzapeko askatasunean da joan zen eguaztenetik. Familiak martitzen eguerdian jakin zuen askatuko zutela, eta Iñigok martitzen arratsaldean. Eguaztenean utzi zuten libre, arratsaldeko 19:15ean, bost milioiko fidantza ordaindu eta gero. Gaueko 12:30ak aldera iritsi zen Bergarara, eta hainbat herritar zituen zain harreraregiteko. Mari Karmen Aiastui, amaren arabere-


ra, "Iñigo oso ondo eta pozik dago, nahiz eta gose grebaren ondorioz piska bat argal". Hernanin ongi etorria egin zitzaion atzo, eta Bergarari dagokionez, gaur egingo zaio, 19:00etan seguruenik, San Martin plazan. Elkorok ia urte erdi eman du Soto del Realeko espetxean. Urtarrilaren 29an atxilotu zuten Baltasar Garzon epailearen aginduz. ETAko nazioarteko kide izatea egotzi zioten.



Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldearen erreforma, pintura zerbitzu osoa eta moketak


943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59



Amillaga, gasolindegia ondoan. Tf.: 943 76 57 34

ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskaparateak...



Asteburuetan bertako
babak eta saibeskia


SALBADOR 10 ELGETA
Tf. 943 76 82 73

San Kristobalgo Lamiategi osina bainu eta aisirako egokitze lanak hasi dira

Lanak hasi dira dagoeneko, eta hamabost egunetan amaituko dira. Lanen barruan, putzua bera bainurako egokitzeaz gain, inguruarekin atondu egingo da.

Putzuari dagokionez, garbitu egingo da eta presa guztia ixteko ohol berriak jarriko dira. Putzuaren ezker aldean dagoen berdegunea ere garbitu egingo da eta hiru mahai eta sei eserleku jarriko dira. Honen guztiaren aurrekontua, hiru milioi pezeta ingurukoa da.

Lamiategi putzuaren egoera nahiko kaskarra zen. Orain hamar urte egin ziren azken konponketak, eta ordutik hona ez da ezer egin. Konponketa haiek Udala eta Zerrajeraren akordio baten ondorioz egin ziren.



Lanak bi astetan amaituko dira, herritarrek udan erabili ahal izateko.

Izan ere, Zerrajera handitzean tapatu egin zen Osina izenarekin ezagutu izan den putzua, eta horren ordean Lamiategi berria adostu zuten.

AUZOKO GAZTEEN ESKAERA

Lamiategi konpontzeko ekimena, San Kristobal auzoko gazteena izan da. Putzua eta honen inguruaren egoera

kaskarra ikusi eta berau egokitze eskaera luzatu zuten Udalean. Bien bitartean, Amuskibar baserriko ugazabak, bere lurretan dagoen izen bereko putzua konpontzeko aukera ere luzatu zuten Udalera. Izan ere, jende ugari joaten da Amuskibarreko osinera uda aldean, eta honek ere hainbat konponketa behar ditu.

Udalak bi osinak konpontzeko aukerak aztertu ondoren, Lamiategi egokitzearabaki du; Amuskibar putzua lur pribatua dagoenez diru publikoa bertan erabiltzeko arazo legalak sortzen baititu.

Lamiategiko lanak bi astetan amaitu egingo dira, udan herritarrek erabiltzeko aukera izan dezaten.

Goiena proiektuak aurrera segitzen du

Kooperatiba moduan eratu ostean eta izaera juridikoa eskuratu ondoren, orain bailarako udaletan hitzarmenak aurkezten hasi dira Goienako euskara elkarteak. Antzuolako Udalak uztailaren 6ko osoko bilkuran onartu zuen Idolazekin Goienarako egin beharreko hitzarmena. Bergarako Udalean, aste honetan aurkeztu dute Jardunekoak.

Bergaran kontuak motelago doaz. Joan zen eguaztenean, Victoriano Gallastegi alkatea Goiena Telebistan izan zen, albistegian hitz egiten. Mainer Osa kazetariak gogorarazi zion lau hilabete pasatu direla BERRIGARAN agindu zuenetik lehenbailehen erabaki behar zela gai horren inguruan. Alkatearen erantzuna: "Bergara aztertzen ari da gai hori

eta proiektu baten zain dago. Egia da atzeratu egin dela gure erantzuna, baina horrek ez du esan nahi Bergarak eta Oñatik ez dugula nahi hori aztertzerik. Estudio sakon bat egiten gabilta, zer premia eta zer eskuartze izango dugun eta denbora gutxi barru, datoren astean edo, edukiko dugu zeozer proiektuan planteatzeko. Baina guk ere

parte hartu nahi dugu egitasmo horretan. Hil honetan ez bada, irailean izango da erantzunik".

Alkateak aitortu egin zuen herritar askok deitzen diotela telefonoz, jakiteko noiz ikusiko den GOITB Bergaran. "Denei esaten diet trankil egoteko, denean ikusiko dela, zeren hor sartzeko asmoa badugu", amaitu zuen Gallastegik.

AGOITZ

Tapizdenda

Leizariako San Lorenzo 25
BERGARA
Tf.: 939 84 57 47



KORTA-ZAR
Txokolategia

Pintxo eta ogibitartekoen
espezialitatea

Barrenkalea 16 ☎ 943 76 20 62

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
943 76 50 68

Berrigara

418 zenbakia.
2000ko uztailearen 14a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.
20570 Bergara.
Telefona: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi, Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpideta: Itziar Kortabarría.
Testuen zuzenketak: Iban Arantzabal.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate, M. Angel Elkorobereibar, Alex Labaien, Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Oihan Vega, Usua Mendikute, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugaldé.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre, Antxon Agirre Sorondo, Joxean Azkarate, Juan Martin Elexpuru, Josu Okina.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko irudia: Berrigara

Tirada: 5.300 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntzaz:



Bergarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Irizar jauregia, Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

HAIKA, EUSKAL GAZTEEN ERAKUNDE NAZIONAL BERRIA

Kanbon burututako Gazte Topagunean sortu genuen Haika erakundea, 21.000 gazteren babespean eta inoiz ez bezalako indarrez. Han bizitako egunak historikoak izan ziren: lehen gazte erakunde nazionalaren sorrera, Euskal Herrian gazte mailan inoiz eman den gazte indar biketarik handiena, mugak gaindituz lurralde-tasuna praktikan gauzatu eta biziz...

Haikaren sorrerarekin batera, gazte erakunde honen oinarriak direnak eta bere praktika gidatuko duen ardatz nagusiak eza-gutzera eman genituen. Erakunde euskalduna, nazionala, independentista, iraultzailea eta internazionalista. Bere baitan urteetako esperientzia biltzen duena eta Jarrai eta Gazte-riak erakundeen kapital politiko-militante eta historiko guztia barneratzen

duena. Euskal Herri guztian eragin eta herri honetako txoko eta bazter guztietan eraginkorra izan nahi duen erakundea.

Orain, oinarri honen gainean erakunde hau osatu, mamiz bete eta garatu egin behar dugu. Horretarako, datozen hilabeteetan luzatuko den prozesua jarri dugu martxan: Haikaren Amaiur prozesu eratzaillea. Antolakunde honek bere oinarrian dituen indarrez haratago, herriz herri gazte independentista berriei atek zabaldu nahi dizkiena eta hauek prozesu honetan inplikatu nahi dituen. Datozen hilabeteetan, milaka euskal gazterekin, herriz herri eta ikastetxez ikastetxe, euskal gazteon errealtatearen eta ditugun erronken hausnarketatik abiatuz, Haikaren apostuak eta ildoak finkatuko ditugu.

Independentzia eta sozialismoa helburu dituen erakundea da Haika. Gazte independentista eta so-

zialisten bilgunea da, helburu horretan kolektiboki borrokatzeko prest gauden guztion bilgune.

Euskal Herri osoko ikuspegitik abiatu eta Euskal Herriko txoko eta errealtate desberdin guztietan eraginkorra izango den erakunde nazionala da gure aurreneko erronka nagusia eta Amaiur prozesuaren bidez erantzuna eman beharko dioguna.

Amaiur prozesu eratzaillea

ZUZENKETA

Joan zen asteko erretratu zaharra Loiolan ateratakoa zen eta ez Arantzazun, bertan adierazten zen bezala.

tira biraka bittor rodriguez



atrebentzia ezpada

bai, esan!

Zer pentsatzen jatzu fatxadetatik antena parabolikuak kentzeko Udalak martxan jarri daben kanpaina?



Jesus Agirre

Ondo. Antenek zatar egittendabe fatxadetan, eta teillatuan ipintzeko aukeria be badago; hobeto ikusten dot teillatuan ipintzia.



Tere Azkarate

Ez dot hain larrixa ikusten antenak fatxadan egotia. Bestalde, neri ez dosta atentziñua deittu, ez dot uste hainbeste darenik be.



Maria Teresa Bruña

Oso ondo pentsatzen jat kanpaina. Oso zatar egitten dabe antenek fatxadetan, eta zatar egitten daben danna kentzian aldekoa naiz.



Nestor Etxarri

Ondo pentsatzen jat hartu dan erabakixa. Ez da batere politta gelditzen. Eta teillatutatik kentzian aldekoa be banaiz.



Josu Ugalde

Oso ondo ikusten dot, oso zatar egitten dabe eta. Teillatuan ipini biharko leukie-la uste dot, eta han be ezkutuan, gaiñera.



Vicente Retegi

Ez jat oso ondo pentsau. Daren moduan laga biharko litxakez. Ez dot uste trabarik egitten dabenik antena parabolikuek.



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97. Identifikazioa beharrezkoa.

TXAKUR ZAUNKAK GAUEZ KOMENIO KALEAN

Pedro Garciak gauez Komenio kalean entzuten diren txakur zaunken gainean kexa bat azaltzeko deitu digu aste honetan. Garcia-ren arabera, zenbaitetan goizeko hirurak aldean txakur zaunkak entzuten dira. Lanera goiz joan behar dutenentzat egoera nekagarria dela dio Pedro Garcia eta horren aurrean ordu horietan txakurrekin egoten direnei sentsibilitate piskat izatea eskatu nahi die. Pedro Garcia-ri errespeto falta iruditzen zaio ordu horietan zarataka ibiltzea eta txakurren jabeen mesedez eskatzen die kontrola ditzatela euren txakurrak. Izan ere, kalean dagoenak jakin behar du, ordu jakin batzutatik aurrera jendeak lo egin nahi duela. Hor dago, beraz, Garcia-ren eskaera.

JOXAN
ARRAINDEGIA



Ibargarai 24
Tf. 943 76 70 29

Gracian

Usaindegia - Mertzzeria

Gure bezeroei aditzera ematen diegu uztailearen 17tik irailera bitartean, denda itxi egingo dugula, erreforma lanak direla eta. Barkatu eragozpenak.

Bidekurutzeta 6 Tf. 943 76 10 25

EDEL
TAPIZDENDA

Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

adituen esanetan

Ilea zela zaindu udan

Urteko sasoi honetan sufritzen du ileak gehien, itsasoko ura, igerilekuetako kloroa edota eguzkia direla eta. Horren ondorioz, ileko koloreak argitzen dira, ilea sikatu egiten da eta distira piskat ere galtzen du. Ilea duten pertsonen kasuan, buru-azalak ez du horrenbeste sufritzen udan, ileak berak babes funtzioa betetzen duelako eta horri esker buru-azala ez delako erretzen. Burusoilek, aldiz, arazoak izan ditzakete zenbaitetan eguzkiaren erruz. Dena den, jendeari ez zaio gehiegi gustatzen txapelak eta horrelakoak janztea eta hori dela eta produktu berezien erabilpena beharrezkoa da batzutan.

Eguzkitan igarotzen ditugun orduetan babes kremak erabiltzea gomendatzen bada, ilea egoki zaintzeko ere hainbat produktu aplikatzea ondo etorriko zaigu. Lehen aipatutako arrazoiengatik ileak kalteak jasan ditzake eta horren aurrean etxe komertzialek espreski uda partean erabiltzeko produktuak kaleratzen dituzte. Azken batean jende askok sufritzen duen arazoa izaten da ilearena eta ile motaren arabera produktu ezberdinen artean aukeratu dezakegu. Produktu hauek gero eta hobeto saltzen dira uda partean, jendea arazo




MIREN ZUBIZARRETA

Ileapaintzailea

"Igerilekuetako kloroa, itsasoko ura edota eguzkiaren erruz, urteko sasoi honetan sufritzen du ileak gehien, ilea asko sikatzen delako"

honekin gero eta kontzientziatuago dagoelako.

Permanenteak edo koloreak tartean direnean ondorioak lehenago igartzen dira. Udan ilea zaintzeko kaleratzen diren produktuen artean, besteak beste, honako hauek aipatu ditzakegu: babes gel-a (ultramore izpien efektuen kontrako babesa, hain zuzen), gatza eta kloroa erraz kentzeko txanpuak, krema hidratanteak (eguzkitan egon eta uretan ibiltzeagatik jasaten ditugun ondorioak konpontzeko aproposak), ileak konpondu eta elikatze maskarak edota ikusezinezko efektua duten spray-ak, ultramore izpien kontrako babesa.



Uda partean ilea ohikoa baino gehiago zaindu beharra dago.

bergarako errotak



ELORTZA-BOLU

Lope Martinez Isastik Elortza oinetxearen aipamena egin zuen 1625ean.

1890eko eroldaren arabera, garai hartan Antonio Aranguren Berrio bizi zen bertan. 40 urte zeuzkan, eta lanbidez nekazaria zen (bazekien idazten eta irakurtzen).

1895ean Manuela Garitano zegoen errotari.

1907 eta 1916ko Gipuzkoako aldikari ofizialek Elortza errota aipatzen dute.

1929ko G.A.O.ak honakoa dio:

"Juana de Dios Aranguren andre gasteiztarrak eskaria egin du, Ur Publikoen Aprobetxamenduko erroldan Ubera erreko urez baliatzen den bat jasoa izan dadin. Aipatutako horrek, Bergarako Elortza errota argindarra sortzea du helburu. 150 litro ur jasotzen du segunduko, eta 7m.ko jauzia dauka..."

1944an hartu zuen alta industri erroldan, Benito Zabaleta Villarren izenean; 1963an baja eman zitzaion Roman Zabaleta Olabarriaren izenean zegoela.

Elgeta errearen ezker aldean dagoenez, bertako urez baliatzen zen. Hasiera baten, bi pare harri zerabiltzan; azkenean, oster, bakarra.

KOKAPENA: San Juan auzoan, Errota erdikoa eta Errota goikoa baserrien ondorengoa.

Antxon Agirre Sorondo



40 urte ezkontuta

Josu Lazpiur eta Edurne Agirrebeña bergararrak ezkontu zirela 40 urte dira. Edurne eta Josu **1960ko ekainaren 25ean** ezkontu ziren, San Pedron, eta duela aste pare bat senideekin 40. urteurrena ospatu zuten, Azpeitxi jatetxean egindako bazkariarekin. Zorionak!!

Dantzari gaztetxoaren irteera

Moises Azpiazu dantza taldekoek kurtso bukaerako irteera egin zuten joan zen ekainaren 27an **Gamarrara**, Gasteizera. Dani Azpiazu irakaslearekin ibili diren 6 urtetik 13 urtera bitarteko **19 lagun** joan ziren. Guztiek primeran pasa zuten elkarrekin eta ordu piloa eman zuten Gamarrako igerilekuetan jolasean. Ikasturtea bukatu denez, orain oporrek gozatzeko aukera izango dute. Argazkia Gatzagan aterata dago, Gasteizera-ko bidean. Dantzari gazteak prest dira dagoeneko beste norabait egun pasa joateko...



San Fermin Bergaran

Ohikoa den bezala, **Xipizarok antolatutako udaleku irekietan** ari diren gaztetxoek **San Fermin eguna** ospatu zuten uztailaren 7an. Txuriz jantzita eta zapi gorria lepoan, gaztetxoak kalejiran ibili ziren trikitilarien laguntzaz, txupinazoa jaurti zuten San Martin plazan eta jarraian **Gorritiren aberekin** jolasteko aukera izan zuten. Gora San Fermin!

GOITBren zozketan saritu bergararrak

San Joanetan GOITBk antolatu zuen zozketan **Asier Arrieta eta Anartz Agirre** bergararrak saritu zituzten. GOITBko magazin berezian lehian ziren bi partaideren artean baten alde egin behar zuten ikus-entzuleek eta Anartzek eta Asierrek irabazlearekin asmatu zuten. Ondorioz, **kanpin denda bat, lo egiteko zakua eta motxila bana** irabazi zuten. Oporretara joateko azpiegitura bada behintzat!



San Pedro maskalduta

Udalak ingurua bailatu du herritarren segurtasuna bermatzeko

San Pedro parrokiaren kanpandorreko harrizko balaustrada egoera kaskarrean aurkitzen da; are gehiago, aparejadoreak aurkeztutako txostenaren arabera, balaustrada zati bat zintzilik dago, eta arriskutsua da hori horrela lagatzea. Hori dela eta, Udalak parrokia ingurua bailatzea erabaki zuen, eta halaxe dago eguakitaz geroztik. Txostenok, egoeraren berri emateko, Aldundira, parrokiara eta Gotzaitegiara bidali ziren. Hala ere, parrokoa ez dago ados Udalak hartutako erabaki honekin.

San Pedro parrokiaren inguruneak bailatzeko erabakia hartu zuen Udalak joan zen eguakitzean, kanpandorreko balaustradak arriskua eragiten duelakoan. Izan ere, balaustradaren zati bat zintzilik dago, kolokan, eta kalera erortzeko arriskuan.

Aspalditik datorren kontua da, baina. 1999ko uztailan, orain dela urtebete hain justu, kanpandorretik harri zatiak eta area erori zen. Hori zela eta, aparejadoreak erorketa gertaturiko inguruneak bailatzea gomendatu zuen eta halaxe egin zuen Udalak. Era berean, jabeari, hau da, Gotzaitegiari, egoeraren berri eman zitzaion, behar ziren neurriak har zitzan eskatuz. Eguraldi txarrak eragindako erorketak izan zirela azaldu zuen Gotzaitegiak.

Martxoan kanpandorrea garbitzeko lanak egin ziren eta bertan hazita zeu-

den zuhaixkak eta solte zeuden harrizkak kendu zituzten. Hala ere, gaur egun ingurua bailatzea eragin duen arrazoia ez zen konpondu, balaustrada zegoenetan utzi baitzen.

UDALAREN TXOSTENAK

Xabier Aranburu Udal museologoak iazko erorketak gogoratzen ditu bere


Orain urtebete ere harriak eta area erori ziren kanpandorretik eta Udalak ingurua bailatu zuen

txostenean, eta baita garai hartan landutako txostenaren ondorioak ere; hala nola, teiltuaren itxura zaharkitua, elizaren hormaren egoera kaskarra, eta baita kanpandorrearena ere.

Gaur egungoari dagokionez, larritzat jotzen du egoera: "egoera oso grabean egoten jarraitzen du Jose de Lizardi arkitektu barrokoaren arkitektura lan bikain honek" dio Aranburuk. Udal museologoak hainbat argazkirekin osatu nahi izan du bere txostena, argi lagatzeko ze egoeratan dagoen kanpandorrea.

Xabier Aranbururen txostena irakurri ostean, bere azterketa egiteari ekin zion Jose Mari Etxeberria aparejadoreak, eta antzeko ondorioetara iritsi zen bera ere. Balaustradak arriskua eragiten zuela eta, Udalarari neurriren bat hartzeko aholkua eman zion.

Behin txosten biak eskuartean ziztuztenean, parrokiari, Gipuzkoako Fo-



Argazkian ikus daitekeen moduan, kanpandorreko balastradaren zati bat apurtuta dago, zihztillik. Behera erortzeko daukan arriskua ikusita erabaki zuen Udalak, oraingoz, arrisku gunea bailatzea.

ru Aldundiari eta gotzaitegiari bidali zien Udalak ekainaren 26an. Uztailaren 3ko Gobernu Batzordean, berriz, epe batzuk finkatu zituzten. Hala, 5 eguneko epea eman zitzaion San Pedro parrokiari elizako armariaren azpian bisera babestailea jartzeko. Epe hori pasa eta gero, era horretako inolako neurririk hartu ez zela ikusita, Udalak berak bailak jartzeko erabakia hartu zuen, herritarren segurtasuna bermatu asmoz.

FIDEL EIZAGIRRE PARROKOA EZ DAGO ADOS



Fidel Eizagirre San Pedroko parrokoa ez dago ados Udalak hartutako erabakiarekin. BERRIGARATI azaldu dionez, "Udalak gurekin kontatu gabe hartu du ingurua bailatzeko erabakia. Joan zen udaberrian, martxoan hain justu, kanpandorreko garbiketa lanak egin genituen, eta, bide batez, Irungo Oreka Prego enpresa espezialduak kanpan-

San Pedro eliza, XIV. mendeko altxorra



Gaur egun ezagutzen dugun San Pedro eliza aurretik zegoen beste baten "gainenetik" eraiki zen, 1748ko dokumentu baten arabera. Badaude dokumentuak 1348rako Hariznoako San Pedro izeneko eliza bat bazezuela esaten digutenak ere.

Argazkian ikusten den San Pedro parrokia 1527-1619 bitartean eraiki zen. Horregatik, gustu eta estilo ezberdinak biltzen dira bertan: euskal gotikoa, errenazimentua... 1527an On Pedro Lizarazuk hasi zituen eliza berriaren lanak. Izagirrek jarraitu zituen eraikitze lanok, eta hau hil zenean, berriz, Pedro Ibarra izan zen ardura hartu zuena. Hauek izan ziren, besteak beste, San Pedro eliza eraikitzen jardun zuten maisuak. Kanpandorrea 1742koa da, eta Lizardi arkitektoak egindakoa.



Bi argazkietan argi ikusten da zein egoeratan dagoen balaustrada. Ezkerreko argazkian, balaustradaren puska batean hiru balaustre falta direla ikus daiteke. Eskumakoan, berriz, balaustre bat eta eskubanda zati bat apurtuta daude.

dorreaken egoerari buruzko azterketa tekniko bat landu zuen". Eizagirrek dioskunez, "adituek orduan egin zuten txostenaren arabera, ez dago inolako arriskurik. Kanpandorreaken azpitik lasai-lasai pasatu daiteke edonor, ez baitago ezer erortzeko inolako arriskurik".

Hala ere, Udalaren bi txostenok direla eta, astelehenean bertan, Gotzaitagiko arkitektoa eta Oreka Prego enpresako tekniko bat San Pedro parrokia aztertzen aritu ziren berriz ere, "eta berriro esan digute ez dagoela inolako arriskurik. Beraz, iruditzen zait lekuz kanpokoa dela hor bailak jartzea". Gainera, museologoak eta aparejadoreak egin duten azterketa bisuala soilik izan dela azaldu du Fidel Eizagirrek, eta esan digu begiratuta bakarrik ezin dai-

tekeela jakin benetan ze egoeratan dagoen balaustrada. Parrokiarendako azterketak egin dituzten teknikoez, berriz, bertatik bertara aztertu ei dute kanpandorrea eta bertako balkoitoa.

"Adituek esan digute ez dagoela arriskurik. Lekuz kanpokoa iruditzen zait, beraz, hor bailak jartzea"

F. EIZAGIRRE, S. PEDROKO PARROKOA

ALKATEA ARDURATUTA AZALDU DA

Victoriano Gallastegi alkatea oso arduratuta azaldu da gai honen inguruan: "harrigarria egiten zait horrelako arazo bat izan, eta, gainera, parrokoarengandik era horretako erantzuna jaso izana". Gotzaitegiak ere ez omen du oraindik inolako erantzunik eman.

Honakoa gaineratu zuen Gallastegik: "ez dut ulertzen argazki horiek ikusi eta nola ez den arduratzen parrokoa. Badirudi elizaren edo parrokiaren aurka zerbait dugula uste duela edo. Niri iruditzen zait kontrakoa dela. Eskertu egin beharko liguke. Guk ez duguna nahi da ezbeharren bat gertatzea, harriren bat erori eta norbaitek minen bat hartzea. Hori ekiditeko hartu ditugu hartu ditugun neurriak".<



gizon & emakume

Barrenkalea 35 BERGARA

Irala 3
Telefona: 943 76 48 26



IRRINTZI
kafetegia

Ganbara
TABERNA

Heure erara ibiltzeko!

Irala z/g. Tf. 943 76 55 75

Arantza
Erlojutegia

Barrenkalea 4
943 76 10 04

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
943 76 20 34

P B **PINTURAS BERGARA S.L.**

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK

Aranerrea 32 behea. BERGARA. Telefona: 943 76 10 65. Faxe: 943 76 11 40.

Aprobetxa ezazu aukera hau!



**Uda honetan,
konexio kuota
doan eta 6.000
pezeta deietan
opari zure
Movistar
kontratuan**

Kontsultatu eskaintza honetako baldintzak
Abuztuaren 31ra arte balio du eskaintzak

**Telefónica
Movistar**

Trimo

**Zurradero 4
BERGARA
943 76 59 52**

Banataile Ofiziala

Loramendi kirolak

Abuztuan goizez zabalik

**Zure
oporretarako
material guztia**

2.765 pta

**11.450 pta
Goretex**

9.995 pta

2.750 pta

4.995 pta

8.995 pta

Arrasate

Kirol Sariak 2000

12 kirolari, Beti Busti eta Alicia De Cesar entrenatzailea sarituta

Eguazten arratsaldean aurtengo Kirol Sariak bana-tu ziren Kultura Etxean. Aurtengo edizioako deialdian herriko 12 taldek hartu dute parte, talde bakoitzeko

kirolari bana sarituz. Nere Amaia Zabala, Juanjo Arrieta eta Aitor Goiti udal zinegotzien eta Edu Mendibil BERRIGARAKO zuzendariaren eskutik, saritutakoek plaka

oroigarri bana eskuratu zuten. Alicia De Cesar gimnasiako entrenatzaile ohiak sari berezia irabazi zuen, 12 urtez Ariznoa gimnasia erritmiko taldean egindako la-

nagatik. Era berean, Beti-Busti piraguismo taldeak herriko talde onenari zego-kion saria jaso zuen, herriko kazetariak hartutako erabakiari jarraituz.




Lehen mailako jubenilak

Futbol saila. Gipuzkoako txapelkunak dira, denboraldi borobila egin ostean.



Iker Zabaleta
21 urte.
Pilota saila.
Monitore gisa lan aipagarria egin du.




Mikel Etxeberria
28 urte.
Saskibalo saila.
Azken denboraldia bete du aurten.



Olatz Manuel
18 urte.
Eskubalo saila.
Jubenil taldeko jokalaria onenetakoa izan da.



Bittor Agirrebarrena
35 urte.
Bergarako Lagunak.
Futbito txapelketan hasieratik ari da.



Markel Agirre
14 urte.
Beti-Busti.
Gipuzkoako txapelduna infantil mailan.



Irati Arteaga
12 urte. Ariznoa gimnasia taldea. Eskola kirolean Gipuzkoako 3. postuan sailkatu da.



Leire Caceres
18 urte. Badminton.
Taldean daraman urteetan garapen ona erakutsi du.




Raquel Blanco
13 urte.
Shotokan.
Gipuzkoako selekzioan sartzeko aukerak ditu.



Inazio Jabier Ugarte
38 urte.
Xake taldean 25 urte inguru daramatza, maila onean gainera.



Jon Beistegi
16 urte.
Zaleak. Kadete mailako antxintxika probetan onenetakoa.



Xabier Aranguren
18 urte.
Lokatza taldea.
San Juan saria irabazi zuen aurten Arraten.



**Sari berezia
Alicia De Cesar**

Aurtengo sari berezia Alicia De Cesar naparrak irabazi du. De Cesar Ariznoa gimnasia erritmiko taldeko entrenatzailea izan genuen 12 urtez eta orain bi urte utzi zion bergararren entrenatzailea izateari.

Berarentzat sorpresa handia izan da sari berezia jasotzea: "nik uste dut sari honekin Bergaran gimnasia erritmiko mailan egindako lana aitortzen dela. Kontuan izan Bergara bezalako herri txiki batek Estatuko eliteko taldeekin lehiatu izan duela eta beharbada guzti hori ez da behar bezala baloratu orain arte". Hainbat urtez

egindako lana eskertuz, Aitor Goiti zinegotziak plaka oroigarria eman zion eguazteneko ekitaldian Alicia De Cesarri, Kultura Etxean bildutakoen txaloen artean.

Bergarako taldea utzi zuenetik, gimnasiako munda alde batera utzi du. "Egia esan, pena handia eman zidan Bergarako taldea lagatzeak, baina ez genuen baldintza onetan lan egiteko aukerarik eta, tamalez, gure gimnasta onenek Eibarrera alde egin behar izan zuten. Ni oso pozik nago Bergaran pasatako urteez, esperientzia aberasgarria izan baita"



**Talderik onena
Beti Busti**

Herriko kazetariak hala erabakita, Beti-Busti taldeak eraman du talderik onenaren saria. Inazio Azpeitiak zuzentzen duen taldean 40 kirolari biltzen dira gaur egun eta taldeak Espainiako ur bizietako slalom kopan hirugarren postua eskuratu du aurtun.

Konpetitzez gain, urtean zehar piraguismo zale-tuei zuzendutako irteerak antolatzen ditu Beti-Bustin, arrakasta handiz gainera. Iñaki Gallastegi (argazkian) jaso zuen trofeoa eguazteenan. Horrez gain, kirol materialean gastatzeko 50.000 pezeta eskuratuko dituzte.

**Txirrindulari
lasterketa**

Bihar, zapatua, jubelnil mailako Santa Marinako IX. txirrindulari saria jokatu da, arratsaldeko 16:00etatik aurrera. Partaideek 98 kilometroko ibilbidea bete beharko dute. Helmuga Matxiategin izango da, 18:30ak aldera.

Akanpada

Pol-Poleko Gazte Sailak uztailaren 22tik 25era Piriniotan akanpada antolatu du. Argibide gehiago Pol-Poleko bulegoan (943 76 48 51).

Mendi irteera

Gorla Alpinok eta Pol-Polek domekan, hilak 16, egun osoko mendi irteera antolatu dute, ondoko ibilbidearekin: Izpegi-Autza-Gorostopalo. Irteera goizeko 7:30ean Frontoitik. Txartelak Pol-Pol tabernan.

ileapaindegia
eder gela

— disdira —

Masterreka 7 • Tf. 943 76 00 55

Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
SELF-SERVICE-a

Barrenkalea 31 Tf. 943 76 20 02 BERGARA

Gallastegi

Jostundegia

Mahozko lanerako jantziak

San Pedro ☎ 943 76 10 85

PILI GISASOLA

Sentiveri

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

Zurradero 2 behea.
☎ 943 76 58 83

OGIZUN

koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13

GURIDI altzariak

Era guztietako
altzariak

Artekalea 8 Tf. 943 76 31 02

Zestoarrak nagusi pala txapelketan

Binakako pala txapelketaren finala, Irureta eta Mendizabal zestoarrek irabazi zuten zapatuan. Angiozarko Arbiaska pilotalekuan jokaturako partiduan Agirrebeña eibartarrari eta Alberdi bergararrari 35 eta 30 irabazi zieten. Binakako XI. pala txapelketaren hirugarren postua Acedo eta Murua-

mendiaraz bergarrek lortu dute, Elgoibarko Urigoitia anaiei irabazi baitzieten. Guztira, bederatzi bikote izan dira lehian pala txapelketan. Txapelketa Deba-goieneko zirkuiturako puntuagarria izan da.

Hurrengo txapelketa Arrasaten jokatu da, irail erdialdean.



Saritutako bikoteak Nere Amaia Zabala kirol zinegotziarekin eta Maximo Zangitu epailearekin.



Argazkian jokalariai bergararrak Jacan.

Gipuzkoako selekzioarekin

Bergarako infantil mailako eskubalo taldeko Jon Errasti, Iñaki Manuel, Mikel Plazaola eta Gorka Uribe Gipuzkoako selekzioarekin Jacan kontzentratuta izan ziren ekainaren azkenetan. Gipuzkoako taldeak Extremadura, Aragoi eta Nafarroaren kontrako txapelketa jokatu zuen eta hiru partiduak galdu arren, bergarrek maila ona erakutsi zuten. Jokin Errasti Iban Orgazek eta Ruben Sanchezek entrenatzen duten Bergarako taldeko atezaina da, Iñaki Manuel zentral postuan aritzen da, Mikel Plazaola laterala dugu eta Gorka Uribek hegalean jokutzen du. Guztiek domina eskuratu zuten Jacako txapelketan parte hartzeagatik.

Bergarar gimnastak bikain Ourensen

Emaitza bikainak lortu zituzten Ane Miren Fernandez eta Aintzane Narbaez bergarar gimnastek asteburuko Ourensen jokaturako Espainiako txapelketan.

Jubenil mailan, Ane Miren bigarren sailkatu zen soka eta zinta aparailuetan eta Ane Susaetarekin batera hirugarren sailkatu ziren Eibarko Ipurua taldea ordezkatzuz. Estatu osoko 38 talde izan ziren lehian Ourenseko



txapelketan. Bestalde, Aintzane Narbaezek 8. postua eskuratu zuen soka aparailuarekin, junior mailan. Lei-



Ane Miren Fernandez (ezkerrean) eta Aintzane Narbaez.

re Lasak, berriz, ez zuen azkenean parte hartzerik izan. Autonomien sailkapenean, Euskal Autonomi Elkarte

gimnastak bigarrenak izan ziren. Bergararrak oso pozik itzuli dira Galizian lortutako emaitzekin.

Usoa Pub



☎ 943 76 38 57
Irala 1

Larkano

KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Barrenkalea 15-17. BERGARA.
Tf. 943 76 25 03

**PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!**

EUXEBIO II


Irala z/g ☎ 943 76 07 92

**OILAGORRA
TABERNA**

Barrenkalea 21 BERGARA

I P I N T Z A K O

futbol txapelketa



Nagusien txapelketa final laurdenetan

Gaur, eguakitzan, Ipintzako txapelketaren lehenbiziko finalak jokatuko dira. Nesken kategorian, kadeteetan, Antzuola eta Eka izango dira aurrez aurre. Antzuolarrak ditugu faboritoak azken jardunaldian 3-1 irabazi baitzieten Ekari. Seniorretan, Potzuk ustekabean lortu zuen finalerako txartela Lai Lai-Lai taldeari finalerdietan 1-0 irabazi ondoren. Gaurko finalean Zutaz pentsatzen taldea izango dute aurrean. Nagusien mailan, berriz, astelehenean eta martitzenean finalerdiak jokatuko dira. Osintxuk Matxakategiri irabazi zion astelehenean (argazkian Gorka San Vicentek Osintxuren alde egindako goletako bat) eta Arloteak taldearen kontra jokatuko du orain. Mongatxurra-Down beste finalerdia ere berdinduta izango dela espero da. Beteranoetan, atzo eguna finalerdiak jokatzeok ziren. Finala ostegunean izango da.

azken emaitzak

NAGUSIAK

Arloteak-Gore	2-1
Osintxu-Matxakategi	3-2
Mongatxurra-Fatxurtu	3-1
Angiozar-Down	0-2

BETERANOAK

A Ze Flaxa- La Guipuzcoana	0-2
Aintzinakoak-Arloteak	2-3
Bildurbarek Opel Lam-Sora	7-4
Os jardineiros-Ezinleike	0-4

NESKAK

Antzuola-Eka	3-1
Aldrebesak-Jo ta ke	2-2
Ogizun-Antzuola	3-0
Potzu-Pentol's Team	7-5
Elgeta-Zutaz pentsatzen	1-7
Eka-Baleike	2-2
Antzuola-Aldrebesak	3-2
Zutaz-Ogizun	2-0
Lai Lai Lai-Potzu	0-1

partiduak

NAGUSIAK

Astelehena 17

19:30: Arloteak-Osintxu (finalerdia)

Martitzena 18

19:15: Mongatxurra-Down (finalerdia)

BETERANOAK

Eguena 20

19:30: Finala

NESKAK

Eguakitzan 14

18:30: Eka-Antzuola (kadeteen finala)

19:45: Zutaz pentsatzen-Potzu ta zapaburuak

(seniorren finala)

sailkapenak

A multzoa

	P	J	GA	GK
1. Arloteak	13	5	14	0
2. Fatxurtu	9	5	11	6
3. Altos Pornos	9	5	9	9
4. Fo Fo Fo	7	5	13	11
5. Txokokuak	0	5	3	23

B multzoa

	P	J	GA	GK
1. Osintxu	15	5	19	6
2. Down	12	5	9	7
3. A Ze Flaxa La Guipuzcoana	6	4	4	5
4. Ezinleike	3	5	6	10

C multzoa

	P	J	GA	GK
1. Mongatxurra	12	4	12	2
2. Gore	9	4	7	5
3. Wartxutale	6	4	4	8
4. Tojhu	3	4	5	6

D multzoa

	P	J	GA	GK
1. Angiozar	12	4	10	3
2. Matxakategi	7	4	6	4
3. Game Over	6	3	10	9
4. Mongatxurra	3	4	8	11
5. Uta	1	4	9	16

Beteranoak A

	P	J	GA	GK
1. Arloteak	10	4	16	7
2. Ezinleike	7	4	14	9
3. Aintzinakoak	6	4	26	10
4. Bar Canalejas	6	4	13	12
5. Os Jardineiros	0	4	2	33

Beteranoak B

	P	J	GA	GK
1. La Guipuzcoana	10	4	13	6
2. A Ze Flaxa	6	3	22	2
3. Bildurbarek Opel Lam	6	3	21	10
4. Sora	1	3	6	23
5. Txipiron	1	3	2	23

Neskak, kadeteak

	P	J	GA	GK
1. Antzuola	16	6	21	1
2. Baleike	15	6	20	9
3. Eka	9	6	11	12
4. Aldrebesak	8	6	12	10
5. Jo ta ke	7	6	17	28
6. Gu ta gutarrak	0	6	1	40

Neskak, seniorrak

	P	J	GA	GK
1. Lai Lai Lai	18	6	25	4
2. Zutaz pentsatzen	15	6	38	5
3. Ogizun	12	6	5	11
4. Potzu ta zapaburuak	7	6	14	9
5. Elgeta	4	6	10	22
6. Antzuola	3	6	8	19
7. Pentol's Team	3	6	10	39

1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Zubieta. 646 516 192.

Pisua garajearekin, Aranrekan. 943 76 07 77.

Iraburun (Bolu), 87 m². 943 76 08 47.

Apartamentu txikia Barrenkalean. Jantzia. 656 740 165 (Mikel).

ERRENTAN EMATEKO

Gasteiz. Pisu txikia alokairuan. Bi lagunendako. Unibertitate ondoran. 619 522 971 (gazez).

Pisua alokairuan Bolun. 943 76 37 89.

Estudioa Benidormen, abuztuko 2. hamabostaldirako. 619 522 971.

Pisua alokairuan udan Torreviejan. 943 76 35 26 / 43 77.

Apartamentua alokairuan Benidormen. Levante hondartzan, lehen ilaran. 943 74 38 27 / 20 31.

Apartamentua Saloun, uztailen eta irailen. 943 79 88 50.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zator Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

3. LOKALAK

EROSI

Lokal komertziala erosi nahi nuke S. Lorentzon. 300 m². 607 82 53 06.

ERRENTAN EMATEKO

Koldo Elizalden, behea, 50 m². 943 76 37 69.

4. LANA

ESKAINZAK

Neska garbiketa lanak egingo litzuke jatetxe batean. 639 936 841.

Umeak zainduko nituzke uztailetik irailera bitartean. 943 76 39 91.

Neska umeekin lan egiteko gertu. Esperientzia. 943 76 53 71.

Neska lanerako gertu udan. 943 76 00 24.

Neska gaztea, garbiketa lanak, umeak zaindu edo dendan lan egiteko gertu. 600 321 302.

ESKAERAK

Bi ume zaindu eta etxeko lanetarako pertsona behar da. 943 76 05 80.

ERRENTAN HARTZEKO

Etxea alokatu edo erosi nuke Bergaran edo Antzuolan. 943 76 39 16.

Etxea alokatu edo erosi nuke Bergaran edo inguruan. 94 446 43 84 / 659 506 679.

Pisua alokairuan hartuko genuke San Antonio-Labegaraieta inguruan. Deitu 943 76 18 73 telefonora.

Pisua edo logela hartuko nuke alokairuan

Bergaran edo inguruan. Deitu 646 975 367 telefonora.

ETXE KONPARTITUAK

Mutila naiz eta pisua konpartituko nuke. 606 758 366.

Iruñean, NUP ondolan, pisua osatzeko bi mutil nahi nituzke. 943 76 33 88.

Donostiako erdialdean pisu handia konpartituko nuke urte osoan. 670 087 427 (Ainhoa).

2. GARAJEAK

SALDU

Garajea salgai Burdiñatan. 943 76 43 75.

Garajea salgai Ibargain. 943 76 00 93.

Matxiategi. 943 76 23 12.

Bolu. 2.000.000 pta. 943 76 47 99 (gazez).

Bolu. 2 plaza. Deitu 616 049 865 telefonora.

ERRENTAN EMATEKO

Santa Marina. 943 76 37 69.

Garajea alokairuan Zubiaurren. 943 76 23 53.

ERRENTAN HARTZEKO

Garajea edo lokal komertziala hartuko nuke alokairuan, 40-60 m²koa. 646 673 204.

Zubiaurren garajea hartuko nuke. Deitu 943 76 08 26 telefonora.

Bolu
liburutegia

Enmarkazioak
Ispiluak neurria
Zurezko artikuluak
Bergarako oleo eta lumatxoak

Koldo Elizalde 1, behea
Tf. 943 76 70 60

ZUBIAURRE
aroztegia

- Aulki eta mahaien erakusketa eta salmenta.
- Sarrerarako eta barrurako atekak.
- Neurria egindako horma-armairuak.
- Tarima eta parketak.
- Zurezko leihoak.
- Era guztietako arotz-lanak.

Zubiaurre 2, Bergara.
Tf. 943 76 15 14 / 943 76 35 73

SANTOS
IRRATI-TB

TELEFONIA MUGIKORRA
• SUKALDEKO ALTZARIAK •
ARGIZTAPENA

Masterreka 2. Tf. 943 76 26 10

GAR

Sukaldeak.
Horma armairuak.
Neurrira egindako altzariak.
Ateak eta leihoak.
Arozlanak.

BERGARA ☎ 943 76 58 86

KAT
OROSI
INMOBIILIARIA

Etxebizitza berriak
Antzuola erdian

- 90 m²ko etxebizitzak, 3 logelakoak
- Leku ezin hobean
- Punta-puntako materialekin eraikiak
- **20 milioitan!**

Santi Kutz 8, behea. 20230 Legazpi. Tf. eta faxa: 943 73 05 25.

Abuztuan etxea garbitzeko emakumea behar da. 943 76 56 15.

Etxeko lanak egiteko eta haurrak ikastolara eramateko neska behar da. 943 76 31 11.

Emakumea behar da umeak zaintzeko. 943 76 05 87.

Emakumea behar da edadetua zaintzeko, uztailetik urrira; zapatu eta domeketan ere bai. 943 76 35 11.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAINTZAK

LH eta DBHko 1. ziklorako eskola partikularrak ematen ditut uztailean. 943 76 25 90.

Eskola partikularrak ematen ditut uztailean. OHO eta DBH. 943 76 39 94.

Udan eskola partikularrak ematen ditut: mate, fisika eta kimika. 943 76 59 15 (Amaia).

ESKAERAK

Ingeniaritzako ikasleak kimikako eskolak hartuko lituzke.

Deitu 943 76 22 95 telefonora.

6. IBILGAILUAK

SALDU

Kawasaki GPZ 500 motorra. Egoera ona. 943 76 71 21.

Opel Kadett (SS-AH). 943 76 02 88.

Aprilia RS 50 motoa. 943 76 48 47.

Trial motoa. 250. 125.000 km. 943 79 78 36.

Seat Panda oso merke. 656 743 272.

Scooter motorra. Skipper 125. Matrikulatua. 943 76 61 05.

7. ANIMALIAK

SALDU

Sei hileko hyspaniel arra, 11 hileko seter ingeles emea eta urte eta erdiko pointer emea. 943 76 37 70.

Katu persak, 2 hilabete-koak. Prezio ona. 943 76 33 58 (Natalia).

Ahutzak salgai. 943 76 48 07 (Gorka).

Setter ingeles txakurkumeak. 943 20 31 01.

Caniche txakurkumeak. Arrak eta emeak. 943 76 57 16.

Behorra eta 2 moxal. 943 76 29 67.

BESTELAKOAK

Txakurkumeak opari. 943 76 21 55.

Bi urteko katu siamesa oparitzen dut nik ezin dudalako zaindu. 943 76 39 95.

8. DENETARIK

SALDU

Play Station: txipa, 2 aginte eta jokoak. 666 466 969.

Inesca Viena karrodenda, ia berria. 943 76 43 80.

Wip-it piragua. Osagarriekin (arraunak, txalekoa...). 150.000 pta. 943 79 78 36.

Bizikletan ibiltzeko rodilloa. 943 76 18 78.

San Marco bizikletako eserlekua; larrua, jela. 5.000 pta. 943 76 07 50.

Egongelako altzarria. Ia berria. 2,8 m. luze. 943 76 41 31.

Play Station: txipa, 3 aginte eta 3 joko. 943 76 47 82.

Batzeko moduko karabana. 943 76 58 05 / 41 55.

EROSI

Bigarren eskuko ordenagailua erosiko nuke. 943 76 47 67.

GALDU

Ekainaren 22 inguruan eguzki betaurrekoak galdu nituen. 943 76 47 93.

AURKITU


Neskaren pultsera aurkitu dut Poligonoan. 943 76 21 07.

Giltza batzuk azaldu dira Antzuolako botikan. Udaletxean daude.

Gameboy bat topatu dut. 943 76 59 16.

BESTELAKOAK

Txakurra edukitzeko txabola behar dut. 607 448 531.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

KOMERTZIALA
Bilbo. 32763/1

HARAKINA
Debagoiena. 35656/4

MEKANIKA MANTENIMENDURAKO TEKNIKARIA
Plentzia-Mungia. 34713/3

ALIKATATZAILERAK
Debagoiena. 35667/4

IGELTSEROA
Debarbarrena. 35666/3

SEGURTASUN ZAINDARIAK
Arabar Lautada. 35407/6

METAL EDO ELEKTRONIKA, Lanbide Heziketa II
Eibar. 35771/3

SEGURTASUN ZAINDARIAK
Donostia. 35411/4

KIROLETAKO MONITOREA
Debagoiena. 35957/2

IGELTSEROA
Bilbo. 35408/1

AEROBIC MONITOREA
Debagoiena. 35958/2

FUNDIZIORAKO PEOIAK 2
Aretxabaleta. 35543/3

MEKANIKA MANTENIMENDURAKO TEKNIKARIA
Debarbarrena. 33131/2

ELEKTRIZISTA
Erandio. 35612/1

ATS/DUE
Bilbo. 34857/6

MEKANIKA MANTENIMENDURAKO 2 TEKNIKARI
Goierri. 32882/2

INFORMATIKA IRAKASLEA
Bilbo. 33343/3

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.
Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.
Telefona: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

- Muralen fabrikazioa
- Bidrierak
- Tailak
- Grabatuak
- Biselatuak
- Ispiluak
- Era guztietako beirak

ZUZENEKO SALMENTA

Iñigo Zabaleta

ARANE KRISTALDEGIA



Artekalea 18, behea.
Tel. 943 76 74 09
670 483 903

Kafetegi-jatetxe batean egunez lan egiteko

PERTSONA GAZTEA behar da

629 942 253

Uberako elkartean

GARBIKETA LANAK egiteko pertsona behar da

943 76 03 72

Bergarako Udala

Bergarako Udala Lehiaketa oposizio bidez eta behin-betiko izaera izango duen lan kontratuarekin OBRA ETA ZERBITZUETAKO LAN-TALDERAKO PEOIA kontratatzea doa



LEHIAKIDEEN BALDINTZAK:
• Eskola ziurtagiria edo parekoa izatea.
• Euskara jakitea, lehen hizkuntz eskakizunari dagokion maila, ez derrigorrezkoa.

Instantziak aurkezteko epea 2000ko uztailearen 24an, 13.30etan bukatuko da. Oinarriak idazkaritzako bulegoetan.

Bergaran, 2000ko uztailearen 6an. ALKATEAK

Eustaquio Agirreolearen fondoa ezagutzera emango da estreinekoz

Argazkilari profesionala izan zen, eta 1891. urtean herriko lehenengo argazki denda ireki zuen Barrenkalean. Udal Agiritegiak Agirreolearen lana berreskuratu ostean, erakusketa bat egingo du azaroan ezagutzera emateko.

Eustaquio Agirreolearen 113 argazki emango ditu ezagutzera azaroan Udal Agiritegiak. Agirreolea, Bergarako lehenengo argazkilari profesionala izan zen. 1891. urtean argazki denda ireki zuen Barrenkaleko 19. zenbakian, eta argazkilari lanak egin zituen Gerra Zibila hasi arte. Guda hasi zenean, Donostiara joan zen bizitzera, eta negozioarekin Toribio Jauregik jarraitu zuen.

Eustaquio Agirreolearen fondoa kristalezko 113 plaka dira. Kristalezko plaka hauek, garai hartako argazkiaren euskarria ziren; gaur egungo negatiboarekin pareka genitzake. Plaketan, Agirreolea beraren familia argazkiak eta kultura ekitaldiak daude beste gai batzuren artean.

Udal Agiritegiak iaz izan zuen argazki fondo honen berri. Agirreolearen familiarekin harremanetan jarri, eta honek, hilabete gutxi direla, Agiritegiaren eskuetan jarri ditu plakak.

PLAKEN KONTSERBAZIOA

Agiritegiak fondoaren zabalkuntza egiteko, lehenik eta behin plakak kontserbatzeko neurriak hartu behar izan ditu. Horretarako, eraberritu, garbitu eta internegatiboak (plakatik negatiboa atera eta positibatu) egin ditu. Ondoren, argazki guztiak digitalizatu.

Udaleko arduradun Arantzazu Oregiren esanetan, "lan hori guztia egina



Agirreoleak Barrenkaleko 19an izan zuen denda.

dago, eta orain erakusketarako gauzak prestatzen ari gara". Argazkiak kontserbatzeko egindako lanaren aurrekontua ia milioi bat pezetakoa izan da. Erakusketa prestatzeko, Diputazioari beste milioi bat inguruko dirulaguntza eskatu zaio.

Plaka originalak, familiaren eskuetan daude, eta Udala hauen kopia batekin gelditu da. Oregiren arabera, arazorik handiena informazio faltarena da. Izan ere, plakek ez dute datarik, eta aterata dauden tokia ere ez dute zehazten. Hori horrela izanik, "80 urtetik gorako hainbat herritarrekin egon gara, argazkiak erakutsi eta informazioa lortu nahian, argazkiak kontestu baten barruan sartu ahal izateko. Hala ere, zailtasun handiak izan ditugu; ez dago memoria erreferentziarik".



Argazkilaritzak bilakaera handia izan du.

ERAKUSKETA

Azaroan erakusketa bat antolatzeko asmoa azaldu du Udal Agiritegiak Agirreolearen fondoa ezagutzera emateko. Bertan, argazkilari bergararraren 113 argazkiak jarriko dira ikusgai, eta baita koitzak azalpen testu bat izango du. Horrez gain, Agirreolearen garaiko argazkilaritzak zituen baliabideak eta materiala ere erakutsiko dira. Arantzazu Oregiren esanetan, erakusketako inaugurazio ekitaldira Agirreolearen familia gonbidatuko dute, esker ona adierazteko.

Bestalde, liburu bat argitaratzeko asmoa ere aurreratu du Udal Agiritegi-ko arduradunak. Liburuan Eustaquio Agirreolearen bizitza eta lana bilduko dira, garaiko beste ezaugarri batzurekin batera.

Argitapen honen edizioko laguntzaile:



*gizarte-ekintza
obra social*

Ramon Arantzabal pintorearen erakusketa Nahikari tabernan

Erakusketan pastel teknikaz margotutako 18 lan daude. Ramon Arantzabalek esandakoaren arabera, erakusketa "abstraktoa da orokorrean, nahiz eta figuratiboa ere baden; abstrakzioa eta figurazioa nahastu egiten dira".

Orain bost urte ekin zion pinturari Arantzabalek, eta hau, hirugarren erakusketa du. Iaz, Bergaran eta Arrasaten erakutsi zituen bere lanak, eta oso kritika onak jaso zituen. Bergaran 40 kuadro erakutsi zituen eta guztiak saldu bost izan ezik.

Hirugarren erakusketa hau, bere ibilbidearen adierazgarria dela aipatu du Arantzabalek. Kuadroen erdiak espreski erakusketa honetarako margotu ditu, eta hauetan abstrakzioa landu arren, gaia nabariagoa da, natura hain zuzen ere. Bestalde, bere kuadroek "kolore askokoak eta biziak" izaten jarraitzen dute, berak esan bezala.

Erakusketa uztailen zehar egongo da irekita. Ordutegia, Nahikari tabernaren arabera izango da.



Arantzabalek 18 lan ditu Nahikari tabernan.

Erakusketa honen ostean, formato txikiagoko pasteekin beste erakusketa bat antolatzeko asmoa du Ramon Arantzabalek.

Dagoeneko 30 margotu ditu; hala eta guztiz ere, formato txikia izango dutela kotuan izanda, beste horrenbeste egin beharko dituela gaineratu du erakusketa bat antolatzeko. Kuadro berriak erakusteko, Eibar edota Zarautzeko Kultura Etxeak aukeratu ditu Arantzabalek. Izan ere, bere lana bailaran ezagutzera eman eta gero, beste toki batzuetara zabaltzeko asmoa azaldu du pintore bergararrak.

Jazz gehiago datozen bi eguenetan

Uztaileko gauei bizitasuna emateko asmoz, jazz emanaldiak antolatu ditu Udalak. Kontzertuak eguenero izango dira, eta dagoeneko bi izan ditugu: lehenengoa "6 AM" taldeak eskaini zuen eta atzo, hilak 13, Madrilgo "Tonkey Blues Band" entzuteko aukera izan zen. Hurrengoa, datorren eguean, hilak 20 izango da, eta "Hierbabuena" talde iruñearrak eskainiko du. Azken uztailaren 27an, jazzaldia agurtuko duen Durangoko "Amarau" izango da. Talde bizkaitar honi dagokionez, bi ataletan banatuko du kontzertua; alde batetik konposizio originalak eskainiko ditu, eta beste aldetik jazzaren lengoaiaz jantzitako musika herrikoitik hartutako abestiak.

Beste guztiak bezala, "Hierbabuena" eta "Amarau" taldeen kontzertuak Espoioian izango dira, gaueko 22:00etan.



Amaraunek zikloa itxiko du hilaren 27an.

Film laburrak euskaraz datorren astean Novedades aretoan Jardunen eskutik

"Zine gaua" euskarazko film laburren emanaldia antolatu du Jardun elkarteak. Novedades aretoan izango da, datorren asteartean, hilak 18, gaueko 22:30ean. Emanaldian hiru film labur eskainiko dira: batetik, Begoña Bicarioeren "Haragia". Film labur honek hain-

bat sari jaso ditu eta egileak Goya bat ere jaso zuen beste film labur batekin 1997an. Bestetik, Koldo Almandozen "Adar Bakar". Azkenik, Asier Altuna bergararraren eta Telmo Esnal zarautzarraren "Txotx". Sarrerak 300 pezeta balio du.

ETXEPARE-BILINTX



LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA

ezpeleta
Ostalaritzarako
ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako
mahai-zapi eta industri-ehunak

San Lorentzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77/Tf. eta faxa: 943 76 17 09

denborapasa

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

LUMA

Ezker eskuma

1. Amesgaiztoak. 2. Petatxu. Musika nota.
3. Jateko gogo. Nahastura trinkoak. 4. Ulertzeko modukoa.
5. Bizkaieraz, larru. Bi. Tona. 6. Kontsonantea. Enea. Omen.
7. Edo. Ez eme. Burdinola. 8. Gar. Hitez adieraziak.
9. Arkua. Bostehun eta bat. 10. Ipuinak.


Goitik behera

1. Laguntza. 2. Zainetako isuri gorria. Infin., luzatu.
3. Koartela. Turkia. 4. Nazio. Eako. 5. Masurioa. Nahia.
6. Ukapena. Aise. 7. Gogo bizia. Bokala. Iodoa.
8. Sufrea. Gaixo. Ongi. 9. Pozik. Bizkaieraz, enara.
10. Beldurtiak. Potasioa


Soluzioa

- Ezker eskuma*
1. Lokamutsak. 2. Adabaki. La.
 3. Gose. Oreak. 4. Ulegarria.
 5. Narru. II. T. 6. T. Nireia. Ei.
 7. Ala. Ar. Ola. 8. Su. Erranak.
 9. Uztia. DI. 10. Narratzoak.
- Goitik behera*
1. Laguntasun. 2. Odola. Luza.
 3. Kaserna. Tr. 4. Aberri. Ean.
 5. Ma. Guraria. 6. Ukoa. Erraz.
 7. Tirra. A. I. 8. S. Eri. Ondo.
 9. Ala. Elai.
 10. Kakatxak. K.

bonofotoa



Miguel Angel Elkorobereziabar




Bi ate hauek kale berean daude. Zein kaletan?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

1. San Pedroko kanpandorrea, zein arkitektoarena da?
A- Lizardirena
B- Carmonarena
C- Guenetxearena
2. Zein elkartek jaso du talde onenaren saria aurtengo Kirol Sarietan?
A- Lokatza
B- Beti-Busti
C- BKEko pilota saila
3. Non jarri zuen Bergarako lehen argazki denda Agirreoleak?
A- Artekalean
B- Barrenkalean
C- Bidekurutzetan



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

Aurreko aleko saria, **Iñaki Linazisoro**rentzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Iñakiri! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **4 herri** (Soraluze, Elgoibar, Mendaro eta Deba) Galde Debalde: **1-B, 2-B, 3-B**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Berberana
ardo gaztea, beltza edo gorria, 3/4
259 PTA!
Super BMen beti eskaintzarik onenak!

Laster etorriko dira 20 urte Nerea lantzeria ireki zebela. Negozio familiarra da, eta han dihardu lanian Ana Iztuetak dendia zabaldu zebenetik. 41 urte dauzka, ezkontuta dago eta seme bat dauka.

Bikini eta baiñujantzi asko salduko ziñuen egun honetan, ezta?

Bai, eguraldi ona egittiak asko laguntzen dau salmentetan.

Zer saltzen da gehixago, bikinixak ala baiñujantzixak?

Baiñujantzixak be saltzen dira, baiña bikinixak gehixago.

Zeuk zer erabiltzen dozu?

Neuk be bikinixa.

Eta barruko erropak, zer estilotakuak?

Lisuak, baiña koloredunak.

Probokatibuak ala normaltxuaguak?

Koloretakuak bai, baiña senzilluak.

Gizonendako, berriz, zelakuak gustatzen jatzu?

Gizonendako be koloretakuak gehixago, estuak; gehixen boxerrak gustatzen jat.

Gustoko dozu zure lana?

Bai, oso gustora nabil.

Aldatzekotan, zertan lan egin nahi ziñuke?

Ez dakitt; ez dot uste aldatuko neukenik.

Zela definittuko ziñuke zeure burua?

Galdera zaila da hori; segun ze egun daukaten.

Bestiengan zer da gehixen apreziatzen dozuna?

Danok dauzkagu geure alde onak eta txarrak; nik uste dot dan bezala onartu bihar dala pertsona bakoitza.

Zure bizitzan zer dago faltan?

Ezebez.

Ana Iztueta

Positibia zara, ezta?

Bai, uste dot hala naizela.

Eta zer soberan?

Soberan be ezebez; bueno, kilotxo batzuk igual.

Miresten dozun pertsona bat?

Bestien onerako gauzak egitten dittuan jendia, sakrifizioak egiñaz.

Egin dotzuen oparirik polittena?

Aspaldixan bape ez doste egiñ; baiña polittena igual eratzun bat.

Haurtzaroko oroitzapenik onena?

Osintxuko errekan jolasten ibiltzen giñanekua.

Eta txarrena?

Aittitta hil zaneakua.

Txikittan zer izatia nahi ziñuan?

Erizaña; muñeka batekin jolasian ibiltzen nintzan: zulatuta laga neban.

Denbora librian zer egittia gustatzen jatzu?

Horixe falta jat neri, denbora libria; uda aldian kanpiñian juaten gara Harora.

Sanfermiñetan egon zara?

Ez, sekula ez naiz egon; ez jat gustatzen hainbeste jende egoten diran tokixak.

Oporretarako ze plan daukazu?

Urteroko moduan, hondartzan pasatuko dogu uda, Benidormen.



ARDATZA

Brikolaketa

Ateak eta zokaloak
Horma armairuak
Sarrailak eta manilak
Koadroen enmarkazioak
Era guztietako moldurak
Apalak
Kajoiak

Masterreka 4 behea
☎ 943 76 18 93

- × Ezkontzak
- × Bataioak
- × Jaunartzeak
- × Enpresa bazkariak eta lagunartekoak
- × 150 lagunendako jangela



P A R K I N A E T A T E R R A Z A


BASTER-ALDE

J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABALETA

Tf.: 943 79 24 58

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1
943 76 72 73

Mizpildi 8
943 76 12 32



Pol-Poleko gaztetxoak, 1988

Udan murgilduta egon arren, neguko argazkia dakarzkizuegu aste honetan. Argazkia orain dela 12 urteko martxoan aterata dago, Pol-Pol Mendizale Taldeko gaztetxoek egindako irteera bateko irudia da hain zuzen ere. Antza denez, mendizale gaztetxoak goizean goiz atera ziren erregulatutako martxa bat egitera. Egin beharreko ibilbidea honako hau zen: Santutxu-Elosumendi-Pol-Pol-Soraluze eta Bergara. Gaztetxoek sasoi ezinhobea erakutsi zuten eta argazkian hamarretakoa egiteko orduan

aterata dago, Pol-Poleko iturriaren ondoan bokadiloa jaten ari direlarik. Ikus dezakezuenetz, ingurua guztiz elurtuta agertzen da. Baliteke argazkia Javier Areitio argazkizaleak ateratakoa izatea. Kontuak kontu, honako hauek dira erretratuan agertzen direnak, ezkerretik esku-mara:

Jokin Elgoro, Eneko Igartua, Josu Arregi, Roberto Rodriguez, Mikel Kareaga, Jon Ugarte eta Aitzol Altuna (zutik).

Argazkia: Eneko Igartua

ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Irizar jauregian gaituzu, zatoz!

IKUSBI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Iraila 5 ☎ 943 76 53 09



zumelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!


San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



Zuretzat,
bidalketa sistema
fidagarri bat edukitzea
ez da aukerarik garrantzitsuena.

Bakarra da.

BIDALI BEHARREKO ZERBAIT
GURE ESKUETAN JARTZEN DUZUNEAN,
AHALEGIN ETA ITXAROPEN OSOZ
EGINDAKO LANA, JASO DUGUN MODUAN
MERKATURATZEA NAHI DUZU.
BESTALDE, BEZEROEKIKO KONPROMISO BATZUK
BETE BEHAR DITUZU,
ALDI BEREAN HAUEK ERE
BERAIENAK BETE AHAL IZAN DITZATEN.
BIDALKETA,
ZEURE NAHIAREN ARABERA
EGITEA ESKATZEN DUZU,
BESTERIK EZ.
HORI DELA ETA, BIDALTZE SISTEMA EGOKI
ETA GUZTIZ FIDAGARRIA ESKAINTZEN DIZUGU,
HORRELA ZEURE BETEBEHARRAK
GARAIZ BETE DITZAZUN.
HORRELAKOXEA DUZU ENPRESETAKO PAKETEA
ATEZ ATE BANATZEN,
ERABATEKO ESPEZIALIZAZIOA
ETA NAGUSITASUNA LORTU DUEN ZERBITZUA,
GUIPUZCOANAREN ZERBITZUA. ZEUREA.




GUIPUZCOANA
EURO EXPRESS



Beti garaiz.

DESKONTUAK

UNITED COLORS
OF BENETTON.



Maialako Errabala 13

Tf.: 943 79 50 78

APPASATE